

2022KO ARTILE BILKETA PROGRAMA

Kaixo baserritar, aurtengoan ere antolatu dugu artile bilketa, zerbitzua udan izango da.

laz bezala, aurten ere, ahalik eta gehien sinplifikatu nahi da, baina horrek, guztioi ahalegin handiagoa egitea eskatuko digu. Antolakuntzan hiru erakundek hartuko dugu parte: Landaolak, Lurgintzak eta Abelurrek.

Finantzaketaren zati bat GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK egingo du eta bestea artzainek.

Kostua ardi-kopuruaren araberakoa izango da, erantsitako koadroaren arabera. Tarifa hauek dirulaguntza aplikatuta daukate.

ARTALDEA	KOSTUA (B.E.Z. barne)
1-50	36,30 €
51-100	60,50 €
101-150	84,70 €
151-200	108,90 €
201-250	133,10 €
251-300	157,30 €
301-350	181,50 €
351-400	205,70 €
401-500	254,10 €
501-600	302,50 €
601-700	350,90 €
701 <	400,00 €

Interesdunek 627452397 telefonora deitu behar dute. Eman beharreko informazioa honakoa da:

Entregatzeko eguna, ordua eta tokia.

- Artzainak bere izena, deiturak, helbidea eta NAN eman beharko ditu, eta bat etorri beharko du artalde hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren kanpainako datuetan erregistratuta dagoen izenarekin. Informazio hori beharrezkoa da faktura egiteko. Faktura hau, garrantzi handiko dokumentua bihurtuko da erakundearen aurrean (ikuskapenetan) artilearekin zer egin den adierazteko garaian.
- Artzainak azken erroldan zenbat ardi dituen adieraziko du.

Entrega egiteko unean honela izango da antolaketa:

- Artzain bakoitzak artilea entrega-lekura esandako orduan eramango du.
- Zakuak artzainak berak hustu beharko ditu.

Laguntzailea:



Antolatzaileak:



- **Entrega gunean sartzean, artzainak dagokion zenbatekoa ordaindu izanaren egiaztatzea erakutsiko dio bertan dagoen arduradunari.** Horrek esan nahi du artzainak entrega egin baino lehen ordaindu beharko duela. Egiaztatze hori ezean ez da artillerik jasoko. Ordainketa egiteko kontu zenbakia hau da: **KUTXABANK ES98 2095 5029 1110 6295 0166 eta jarri beharreko kontzeptua: IZEN ABIZENAK+ BASERRIA**
- Entrega egin ondoren, entrega-leku horretako antolatzaileak faktura bat emango dio.

Egindako proposamenak artzainen ahalegin handiagoa eskatzen duela ulertzen dugu, baina profesional kopuru handia kudeatzeak ere kostu handiak dakartza, eta ahal den neurrian, mugatu behar ditugu. Kontutan izan behar da, artilea jaso ondoren, kamioi berezi batean eraman behar dela Nafarroara (Sandach produktua delako), kargatzeko luma-kamioi bat behar dela, eta, gainera, produktua eramaten den enpresan tasa bat ordaindu behar dela.

DEITU BEHAR DEN TELEFONO ZENBAKIA: 627452397

ORDAINKETARAKO KONTU ZENBAKIA: KUTXABANK ES98 2095 5029 1110 6295 0166,

Jarri beharreko kontzeptua: IZEN ABIZENAK + BASERRIA

ENTREGARAKO GUNEAK eta EGUNAK:

EGUNAK	LEKUAK	HELBIDEA
EKAINAK 29	IDIAZABAL	DISEMINADO RURAL BARREIATUA 93 (GORROTXATEGIN GRANJA)
UZTAILAK 4	MENDARO	IGARTUALDEA POLÍGONO INDUSTRIAL POL., 2C
UZTAILAK 6	OÑATI	URRUTXUKO EKARPEN GUNEA
UZTAILAK 11	OIARTZUN	MAKUTXO BIDEA, 5
UZTAILAK 13	ASTEASU	AGROALDEAN, ZONA INDUSTRIAL Pol., 188
UZTAILAK 18	AZPEITIA	LASAON, ANARDI AREA ALDEKO APARKALEKUAN (CORRUGADOSEN PAREAN)
UZTALAK 27	BERASTEGI	ARTALEKUN, AITZERGA AUZOA

Edozein zalantza edo argibide behar izanez gero, deitu adierazitako telefono zenbakira.

Ondo izan,

Azpeitian, 2022eko ekainaren 9an

OHARRA: Datu Babesen legearen arabera datorren kanpaina ez baduzu informaziorik jaso nahi, mesedez, jakinarazi telefono zenbaki honetan: 627452397.

Laguntzailea:



Antolatzaileak:

